2016-I-22
Número **478.** zenbakia

ELA
EUSKAL SINDIKATUA
www.ela.eus

# astekaria

## EDITORIALA

### Soberania, langileen aurka

**EAJ, PSE-EE, PP eta UPD alderdiek esandakoa betetzen badute, baztertu egingo dute ELAk Eusko Legebiltzarrean aurkeztutako Legegintzako Herri Ekimena. Izan ere, ekimenak oraingoz soilik EH Bilduren babesa du. Herri-ekimen honen kontra dauden alderdiek ezin dute oraingoan Madril jarri aitzakia bezala. Legegintzako Herri Ekimen hau Eusko Legebiltzarrean onartu liteke, ez dago inolako arazo legalik horretarako; Parlamentuak eskumen osoak ditu. Arazoa, beraz, ez da legalitatearena, arazoa da ez dutela nahi. Ekimenaren kontra dauden alderdiek agerian utzi dute ez dutela borondaterik lan baldintzen hondatzeari mugarik jartzeko.**

**Hitzez EAJk eta PSE-EEk esaten dute ez dutela babesten PPren lan erreformak dakarren prekarietatea, baina praktikan errealitatea oso bestelakoa da. Euren erantzukizun esparruetan ez diote esplotazioari mugarik jartzen. Esperotakoa izan arren, arreta deitzen du kasu honetan (ere) ekimenaren kontra daudenen eta Confebask patronalaren jarreren kointzidentziak. Patronalak publikoki zein pribatuan nabarmentzen duenez, eurentzako “astakeria” bat da azpikontrataz aldatzen denean langileen lan jarraikortasuna bermatzen duen subrogazio eskubidea erregulatzea. Patronalak onurak ateratzen ditu subrogazioa arautua ez dagoenean. Administrazioek –Eusko Jaurlaritza beragandik hasita– benetan larria den gauza bat egiten dute. Lanak eta zerbitzuak beheraka adjudikatzen dituzte, kasu batzuetan %50eraino, aurrekontuen doikuntzak bete ahal izateko. ELAk “isilpeko murrizketa” deitzen dio horri, eta ondorio oso larriak ditu: hitzarmen kolektiboak ez betetzea eta esklabotza soldatekin 12 ordutako lanaldiak inposatzea. Bost axola zaie hau guztia.**

**Gero eta zabalduago dagoen errealitate bat da honakoa. Horregatik aurkeztu dugu herri-ekimena: Eusko Legebiltzarrak, bere eskumenen egikaritzan, lan prekarietatea saihesteko ahal duen guztia egin dezan. Zoritxarrez ez dute nahi, nahiago dute gauzak dauden bezala uztea eta hori onartezina da. Horregatik EAJ, PSE-EE, PP eta UPD alderdiei exijitzen diegu Legegintzako Herri Ekimena onartu dezatela eta, euren erantzukizun esparruetan, enpresa piratek miseriazko lan baldintzak inposatu dezatela ekidin dezatela.**

**Lankidetu!**

### 5 de febrero, Gasteiz: movilización para exigir que se apruebe la ILP que pretende dignificar las condiciones laborales de las subcontratas públicas

# EN JUEGO EL FUTURO DE MÁS DE 55.000 TRABAJADORES/AS

Los peores augurios en torno a la aprobación por parte del Parlamento Vasco de la Iniciativa Legislativa Popular presentada por ELA que pretende dignificar las condiciones laborales de los/as trabajadores/as de las subcontratas públicas se van confirmando: tras más de dos años desde el inicio de esta iniciativa todo apunta a que no saldrá adelante, al contar tan solo con el apoyo de EH Bildu.

Para ELA, esta ILP es una oportunidad inmejorable para pasar de las palabras a los hechos. Es por eso que el sindicato ha hecho un último llamamiento a los diferentes grupos parlamentarios para que aprueben la ILP y demuestren que están a favor de la dignidad laboral. Así mismo, nuestro sindicato ha organizado una jornada de formación y movilización para el 5 de febrero en Gasteiz, con un masivo acto en el frontón Ogeta y posterior concentración en las inmediaciones del Parlamento Vasco. ELA va a luchar denodadamente para poner coto a la precariedad –también en las subcontratas públicas– y para que esta ILP vea la luz en la CAPV, al igual que lo hizo en Navarra.

#### ¿110.000 FIRMAS A LA BASURA?

ELA presentó el 3 de abril del 2014 en el Parlamento Vasco 109.396 firmas en favor de una ILP en la que, entre otros aspectos, se recoja el derecho de subrogación de las y los trabajadores subcontratados ante cualquier tipo de cambio de empresa y la garantía de unas condiciones laborales dignas. En opinión de ELA, se trata de una oportunidad para que los partidos demuestren su compromiso con los principales problemas de los trabajadores y trabajadoras en los servicios que ellos mismos decidieron, en su día, poner en manos privadas.

Sin embargo –salvo sorpresas de última hora– PNV, PSE-EE, PP y UPyD han manifestado que votarán en contra de esta ILP.



Nada parecen importarles las casi 110.000 firmas de otros tantos ciudadanos y ciudadanas vascos apoyando esta iniciativa; ni, por supuesto, las condiciones de miseria laboral a las que abocan a miles y miles de trabajadores/as de las subcontratas públicas.

Las posiciones contrarias a esta ILP coinciden con las de Confebask –que ha llegado a calificar la iniciativa de ELA de “disparate”– y son consecuentes con la política de ajustes del Gobierno Vasco, que da prioridad a los recortes presupuestarios sobre cualquier otra cuestión; sobre todo, si es social. ELA recuerda, como contrapunto, que una ILP exactamente igual fue presentada en el Parlamento de Navarra y que todos los grupos votaron a favor de la misma.

*(Sigue en la página 2)*

### Behin-behinekotasuna %35ekoa da, eta hainbat erietxetan –Arabako Unibertsitate Ospitalea, kasu– %50eraino hurbiltzen da

# OSAKIDETZAKO PREKARIETATEA SALATZEN

ELAk Osakidetzan dagoen prekarietatea salatu zuen urtarrilaren 19an Gasteizko Santiago Ospitalean, Txagorritxurekin batera Arabako Unibertsitate Ospitalea osatzen duten zentroa. Ospitale horretan behin-behinekotasuna ia %50ekoa da gaur egun. ELAk Osakidetzan duen arduradun Peio Igeregik aipatzen duenez, ez dirudi Osakidetzako arduradunek osasun sistema publikoan dagoen prekarietatearekin amaitzeko inolako borondaterik dutenik.

*(2. orrialdean jarraitzen du)*



## INICIATIVA PERSEGUIDA DESDE SUS INICIOS

De consumarse el “no” del Parlamento Vasco, sería un triste final para una lucha sindical que desde el principio intentó ser saboteada. De hecho, nada más presentarse la iniciativa en el Parlamento, el Gobierno Vasco trató de impedir su tramitación. Posteriormente, la Diputación Foral de Bizkaia intentó bloquear su debate alegando un conflicto de competencias. Fue una comisión arbitral, con presencia judicial, la que ha forzado su tramitación. Posteriormente, ya en comisión, ELA ha constatado la falta de respeto y los prejuicios hacia el sindicato de ciertos parlamentarios, así como el preocupante desconocimiento de la realidad social y sindical, que evidencian la falta de voluntad política de aprobar esta ILP y la enorme distancia entre muchos políticos y la sociedad a la que dicen representar.

## LA ADMINISTRACIÓN APUESTA POR LOS RECORTES

Trabajadoras de asistencia domiciliaria, limpieza, ambulancias, OTA, intervención social, monitores deportivos, visitas guiadas, servicios de información turística, atención en centro de exposiciones, talleres educativos, servicios técnicos... Una larga lista que superaría, en estos momentos, las 55.000, según cálculos del sindicato. No es exagerado, a la vista de la magnitud que ha alcanzado la subcontratación pública que algunos hablen de una auténtica administración paralela. Esta ILP no es cuestión baladí. Se trata de garantizar un futuro con estabilidad y dignidad laboral para miles de trabajadores/as o, por contra, seguir instalados en la inseguridad y la precariedad.

## AZPIKONTRATA PUBLIKOETAN ENPLEGUA MANTENDU ETA BALDINTZA DUINAK BERMATZEKO LHE-A

### ZER DA LEGEGINTZAKO HERRI EKIMEN (LHE) BAT?

Herritarrentzako parte hartzeko modu bakarra da; honen bidez parlamentura eraman daitezke edozein arrazoi medio indar politikoek aintzat hartu ez dituzten gaiak, edota ekimena proposatzen duenaren kezkak. Ikuspuntu demokratikotik, LHEa demokrazia partizipatiboaren adierazpen bat da.

### ZERGATIK PROPOSATU DU ELAK?

Lan-baldintzak gero eta okerragoak dira, hainbat murrizketa eta erreformen ondorioz; gauza bera gertatzen zaie herri-administrazioek kontratatutako enpresentzat lan egiten duten beharginei. Baldintza-agirietan gutxieneko bermerik ezartzen ez denez, sektore askotan esplotazioa gertatzen da, eta zerbitzuak egiten dituzten enpresen aldaketak enplegua galtzea dakar; lanaldia murritza denean, are ordu gutxiago izatea; lehiaketan ezarritako prezioak beheratzean lan-hitzarmena ez aplikatzea, edota soldata-eskala bikoitzak, baldintza ezberdinak aplikatzen zaizkielako langile berriei.

Administrazioek arlo publikoko jarduerak azpikontratatzen dituzte, guztion dirua baliatuz. Beraz, esparru honetan lan egiten duten pertsona guztien baldintzak beren ardurapean daude, eta gutxieneko eskubide batzuk bermatu behar dituzte. Horrela zerbitzu publikoen kalitatea herritar guztientzako ziurtatuko litzateke. Hartara, ELAk proposatu du lege batean jasotzea administrazioek minimo horiek nola bermatuko dituzten.

### ZER PROPOSATZEN DU ELAk?

Herri-administrazioak behartzea lanarloko gutxieneko eduki batzuk errespetatzera, zerbitzuen azpikontratazioetan. Kontratetako langileen lan- eta soldata- baldintzen gainean eragina duten arauak bi dira, batik-bat: hitzarmen kolektiboa eta baldintza-orriak. Ondorioz, batetik, hitzarmen kolektiboetan ezarritakoa bete behar da, eta bestetik, baldintza-orrietan gutxieneko klausulak eta eskubideak jaso behar dira.

### ZER NOLAKO KLAUSULAK ESKATZEN DITUGU?

- Lehenik, enpleguaren galera ekiditea, bermatuaz azpikontratetako langileek beren postuan jarraitzeko eskubidea izango dutela (subrogazioa), edozein enpresa aldaketa gertatuz gero.
- Bigarrenik, gutxieneko lan- eta soldata- baldintzak bermatzea. Zein baldintza? Indarrean dagoen hitzarmen sektorialekoak, baldin badago, edota indarrean izan den azken hitzarmenekoak, berritu ez bada.
- Hirugarrenik, berriz, zigorrak ezartzea eskakizun horiek betetzen ez dituzten enpresei, edota lan-legedian jasotako eskubideak aintzat hartzen ez dituztenei.




## BIDE BATEZ, SUBROGAZIO ESKUBIDEAREKIN BUKATU NAHI DUTE

**ELArentzat ez dira oharkabean gertatzen alderdi politiko askoren eta enpresa handien arteko lotura estuak. Enpresa horiek, etekinak ugaltzearren, erabaki dute enplegua babesten duen arau oro kendu behar dela. Legegintzako Herri Ekimenari EZETZ esatean EAJ-PNV, PSE-EE, PP eta UPD estrategia horretara lerratu dira. Patronala aurrera-eraginaren amaieraz baliatzen da negoziazio kolektiboan xantaia egiteko, eta era berean traba egiten dieten gai guztiak kendu nahi dituzte. Subrogazioa gai *gogaikarri* horietako bat da. Eusko Jaurlaritza eta Confebask bat datoz lan-subrogazioa esparru guztietatik kentzeko helburuarekin. Horregatik Legegintzako Herri Ekimena eragozpen bat da.**

“Kontratazio politika ikusten baduzu, agerian geratzen da prekarietatearen aldeko apustua egiten dela. Behin-behineko enpleguaren tasa %35ekoa da, eta, zenbait lekutan –Arabako Unibertsitate Ospitalea kasu–, kopurua %50era hurbiltzen da. Kopuru izugarri altuak dira. Pentsa, Osakidetzaren jarduneko eremuan, Euskal Autonomia Erkidegoa, behin-behinekotasuna %20an kokatzen da, eta, Europako Batasuna osatzen duten 28 herrialdeen bataz-bestekoa, berriz, %14,1ekoa da”.

Igeregiren ustez arazoaren oinarria kontratazio sisteman dago. “Osakidetzaren kontratazio sistema zuzendaritzaren eta langile bakoitzaren arteko banakako harremanean oinarritzen da. Gauzak honela, lan eskaintza jasotzen duen langileak ez daki eskaintzen zaion kontratua dagokion kontratua den ala ez. Sistema honi, gainera, kontratazioetan dagoen gardentasun eza batu behar zaio. Osakidetzak, eta, batez ere, zerbitzu-zuzendaritzek, nahierara hautatu ditzakete pertsona jakin batzuk postu jakin batzuetarako”.

ELAko arduradun honen ustez agerikoa da prekarietatea Osakidetzako arduradunek hartu duten erabaki politiko bat dela. “Azken urteetan egin diren kontratuak ikusi besterik ez dago. 2012-2014 urte bitartean lanaldi-hereneko kontratuak %16tik gora ugaldu ziren, eta, bitartean lanaldi osokoak %11 murriztu. Hau guztia iraultzea borondate politiko kontu hutsa da”.

Egoera honen aurrean Peio Igeregik bide bakarra ikusten du: mobilizazioa. “ELAk lanean jarraituko du Osakidetzatik prekarietatea ezabatzeko. Etorkizunean ere egoera bidegabeak salatzen jarraituko dugu. Denbora luzea daramagu han eta hemen mobilizatzen, eta sinetsita gaude hau dela bidea”.

*“La contratación en Osakidetza es precaria y parece que no hay intención de que deje de serlo. La eventualidad roza el 35%, y en algunos casos concretos como el Hospital Universitario de Alava se acerca al 50%”.*

*“ELA va a trabajar para que desaparezca la precariedad en Osakidetza; seguiremos denunciado hasta lograr una contratación justa y transparente”.*

**ELAren Azterketa Bulegoak enpleguaren inguruan egin berri duen txostenak agerian uzten du egondako hazkunde ekonomikoa ezberdintasun sozialen areagotzearen kontu izan dela**

# ENPLEGU GUTXI SORTU DA, ETA SORTU DEN APURRA, PREKARIOA




## "GOBIERNO VASCO Y CONFEBASK COMPARTEN ESTRATEGIA Y MODELO"

**Mikel Noval, responsable de política social, Adolfo Muñoz, secretario general, e Iñaki Salaberri, miembro del Gabinete de Estudios, presentaron el 21 de enero en Donostia el informe que ha realizado ELA sobre la situación del empleo en Hego Euskal Herria. En la presentación del informe Muñoz destacó que "ni el empleo ni su calidad son una prioridad ni para la patronal Confebask ni para el Gobierno Vasco. Ambos han decidido profundizar en la precariedad socio-laboral y en la desprotección. Con el crecimiento económico del pasado año han aumentado las desigualdades y los beneficios empresariales, así como la precariedad social y laboral".**

**Además, Muñoz denunció que tanto Confebask como el Gobierno Vasco comparten estrategia y modelo. "De este modo, por ejemplo, están de acuerdo con la postura de Adegi de sacar a los sindicatos de las empresas. Les molesta todo aquello que sea colectivo en relación a la defensa de los derechos de los trabajadores/as. Quieren un modelo en el que solo estén administraciones, empresas y personas. Es muy triste que el Gobierno Vasco esté de acuerdo con el modelo de esa patronal tan rancia y reaccionaria como es Adegi".**

ELAren azterketa bulegoak enpleguari buruzko buletin berezia argitaratu du. Txostena, azterketa bulegoko lan guztiak bezala, Manu Robles-Arangiz Fundazioaren web orrialdean eskuratu liteke osorik (www.mrafundazioa.eus). Hego Euskal Herrian enpleguaren egoera aztertzen duen agiri hau honako lau ataletan banatzen da. Hona hemen agiriaren laburpen bat.

### LANAREN ETA PREKARIETATEAREN EGOERA

2015. urteko hirugarren hiruhilekoan –bestelakorik adierazi ezean aipatzen diren datuak data horietakoak dira– Hego Euskal Herriko biztanleria aktiboa osatzen zuten 1.324.700 pertsonetatik 1.142.900ek lana zuten eta 181.600ek ez, langabezia tasa %13,7an kokatuz. Honek adierazten du langabezia mailak puntu eta erdi behera egin duela urtebete lehenagoko datuekin alderatuta –2014ko hirugarren hiruhilekoan %15,2an kokatzen zen–. Honek esan nahi du iaztik hona 15.300 enplegu sortu direla. Beraz, aurreko hilabeteetan ez bezala, 2015eko hirugarren hiruhilekoan enplegua sortzen hasi zen. Izan ere, orain arte langabeek lana bilatzeari uzten ziotelako jaisten zen langabezia.

Hala eta guztiz ere, lanaren hazkunde hau ia ez da susperraldi sozioekonomiko baten baitan ematen ari, sorturiko enplegu berriak ia erabat prekarioak baitira eta, oraindik ere, pertsona ugari baitaude lan egin nahian eta ezinean. Gainera, langabezia egoeran dauden ia hamarretik seik ez du inolako prestaziorik jasotzen bere langabe egoeragatik.

Sorturiko enplegua, aitzitik, gero eta prekarioagoa da, behin-behinekotasunak eta partzialitateak erakusten dutenez. Lanaldi murritzean lan egiten dutenen langileak %16,8 dira jada (iaz %16,7). Deigarria da oso aztertzea lankontratua egiten duen sektorea publikoa edo pribatua den. Hego Euskal Herrian sektore pribatuak %23,8ko tenporalitatea du eta publikoak, %30,7koa. Nafarroan, sektore biek dute %28ko behin-behinekotasun tasa; EAEn, aldiz, sektore publikoan tenporalitatea %31,4 da eta pribatuan, %22,6.

Enplegua lortzeko behar den denborari dagokionez, 103.100 lagunek urtebete baino gehiago daramate langabezian lanik egin ezinda –langabezian daudenen %56,8– eta hobekuntza bat eman bada ere alor honetan –aurreko hiruhilekoan epe luzeko langabezia langabeen %62,8koa zen eta aurreko urtean %64,1ekoa–, datua larria da oso oraindik, langabeen erdiak baino gehiagok urtebetean ez baitute lanik aurkitu.

### LANGABEZIAGATIKO PRESTAZIOAK

2015. urtean zehar 1.206.253 lan kontratu egin dira Hego Euskal Herrian (2014an egindakoak baino %14,5 gehiago). Kontratu gehienak –%93,6– aldi-baterakoak izan dira; beraz, behinbehineko 1.129.447 kontratu egin dira 2015ean, eta soilik 76.776 izan dira mugagabeak.

2015 urte amaieran 193.160 pertsona langabezian izen emanda zeuden Hego Euskal Herian, urtebete lehenago baino 20.397 gutxiago. Erregistraturiko langabezia %9,5ean jaitsi da, hortaz. Hirugarren urtez jarraian murriztu da erregistraturiko langabezia, 2007-2012 artean egondako hazkunde garaiaren ostean.

Hala eta guztiz ere, langabeziaren gutxitze hau ez da langabe jarraitzen duten pertsonen bizi baldintzen hobekuntzaren baitan eman, gero eta langabe gehiagok ez baitu inolako prestaziorik jasotzen eta, gainera, langabe bakoitzeko prestazioa murrizten baitoa: 2015eko azaroan langabeen %59k ez du prestaziorik jaso, eta langabe bakoitzeko prestazioa 425 eurora murriztu da jada.

### EUROPAREKIKO ETA GIZON-EMAKUMEEN ARTEKO ALDERAKETA

Gure herrialdean dagoen lan eta gizarte egoera Europar Batasunekoarekin alderatzean, argi azaltzen da langabezia eta prekarietate maila altuenetakoak dituen lurraldea dugula Hego Euskal Herria: %13,7ko langabezia tasa dugun bitartean, Euro-guneak %10,4koa du. eta 28 estatuen Europako Batasunak %9,1. Soilik lau lurraldek dute gurea baino langabezia tasa altuagoa EB-28 guztian: Zipre (%15), Kroazia (%15,6), Espainiar Estatua (%21,3) eta Grezia (%24,2) dira. Kontrara, Islandia da langabezia baxuena duen estatua (%3,6), 2008an finantza krisi gogorra pairatu bai, baina presio neoliberalen aurka banka sistema erreskatatu ez zuena. Alemania (%4,5) eta Norvegia (%4,6) daude ondoren.

Hego Euskal Herriaren eta Europaren arteko konparaketa honetan gizon eta emakumeen ezberdintasunak barneratzean, emakumeek prekarietate maila altuagoa pairatzen dute. Datuek adierazten dutenez, lanaldiaren luzera edota partzialitatea da gizon eta emakumeen arteko ezberdintasun nabariena dagoen neurgailua, bai hemen eta baita Europan ere: jardunaldi partzialean lan egiten duten emakumeen portzentajea gizonena baino 4,1 aldiz handiagoa da gure herrialdean, eta 28 estatuen Europako Bastunean erlazio hau 3,6koa da. Behin-behinekotasunak ere emakumeak kolpatzen ditu gehien, gizonena baino %23ko tasa altuagoa baitute (Europan %7 altuagoa delarik). Emakumeen langabezia tasa gizonena baino %6 altuagoa da Hego Euskal Herrian, eta %4,5 handiagoa EB-28n.

### GUTXIENEKO SOLDATA HEGO EUSKAL HERRIAN ETA EUROPAN

Europako estatu gehienek legez ezarrita dute langile eta enpresarien arteko lan harremanak arautzen dituen soldata minimo bat, eta bere kopuru eta eraginaren inguruko eztabaidak badaude ere, adostasun orokorra dago langileen bizi baldintza duinak bermatzen dituen soldata minimoa ezartzearen inguruan. Europar Batasuneko estatuek soldata minimo ezberdinak dituzte ezarrita, zenbaki absolututan 1:10eko ezberdintasun mailara iristen direnak (Bulgariako –hilean 194,29 euro– eta Luxenburgokoaren –1.922,96 euro hilean– arteko ezberdintasuna).

Gogorarazi beharra dago pobrezia erlatiboa, neurgailu ofizialen arabera, hilabeteko 811,90 eurotan ezarri zela 2014an Euskal Autonomia Erkidegoan eta 850,09 eurotan Nafarroan 2013an, 12 ordainalditan. Horregatik, kopuru horietatik behera dagoen edozein soldata minimok eragotziko die kobratzen duten pertsonei dauden pobrezia egoeratik ihes egiten. Hori dena pobrezia erlatiboaren definizioak eta neurketak dituen berezko gabeziak aipatu eta baloratu gabe.

Gutxieneko soldata, lan harremanak beheko aldetik mugatzen dituen legez ezarritako kopurua, betidanik izan da eztabaidatua arrazoi ezberdinengatik. Baina gehienetan ez da gaia sakonean aztertu eta eztabaidatzen, ez delako kontuan hartzen lege ezarpen horrek sortzen duen (in-)justizia. Gutxiengo soldataren beharra baloratu gabe etikaren eta justiziaren aldetik, beste alor batzuk aztertu daitezke.

## Jokin Arbea, responsable de industria en Navarra, defiende huelga indefinida en TRW para frenar el ERE que supondría el despido de 250 trabajadores/as

# "ES UN CHANTAJE INJUSTIFICADO"




La dirección de la multinacional TRW –empresa dedicada a la automoción situada en el polígono industrial de Landaben– propuso el 19 de enero un Expediente de Regulación de Empleo que supondría el despido de 250 de los 620 trabajadores/as que actualmente tiene esta planta. Además, el ERE condiciona la negociación del convenio del que la empresa quiere una notable pérdida de las condiciones laborales y sociales. Jokin Arbea, responsable de ELA en el metal de Navarra, califica de "chantaje y agresión" la propuesta de TRW, y considera que "hace falta una respuesta contundente".

**-¿Qué valoración haces del anuncio de TRW?**

-La dirección ha trasladado a la plantilla un ERE que supondría 250 despidos, además de una evidente pérdida de las condiciones económicas y sociales. Además tampoco se garantiza que haya actividad industrial más allá del año 2018. La primera valoración es que las causas alegadas para justificar el ERE obedecen a una estrategia creada por la propia empresa.

**-¿Por qué?**

-No hay ningún argumento que justifique el ERE. La empresa no puede argumentar causas productivas cuando TRW ha decidido que sea la planta de Polonia la que fabrique la dirección del nuevo Polo. No han cumplido el compromiso que adquirieron en la anterior negociación del convenio para implantar nuevas cargas de trabajo.

Tampoco pueden apelar a causas económicas cuando TRW Automotive España es una empresa saneada y rentable. TRW no tiene problemas de liquidez, y la situación económico-financiera es muy buena. Esto no lo dice solo ELA, que también, lo dice la propia compañía en las cuentas e informe de gestión que deposita en el registro mercantil. Como dato incuestionable ahí está el beneficio de 140,8 millones de euros en los cinco últimos años auditados. Hablamos de una empresa que durante ese mismo periodo ha tenido la capacidad de generar 195,4 millones de euros como flujo de caja o de tesorería.

Y, por supuesto, tampoco pueden argumentar causas organizativas cuando es TRW quien ha decidido tener el ratio de trabajadores/as directos e indirectos que hoy utiliza para justificar los despidos.

**-A partir de ahora, ¿qué?**

-Ahora se ha abierto un proceso de negociación de 30 días fijado por la empresa para renegociar el convenio colectivo. Con el anuncio del 19 de enero TRW no solo quiere los despidos, también busca condicionar la negociación del convenio y recortar los derechos salariales y sociales. La dirección de TRW pretende financiar las indemnizaciones de los despedidos con los recortes del anterior convenio y del próximo. La propia memoria del ERE afirma que con el aumento de los ritmos de trabajo en 2016 y 2017 se justifica el despido de 63 trabajadores/as de mano de obra directa del total de 250 que se plantean.

**-¿Qué propone ELA ante esta situación?**

-Desgraciadamente esta situación no es nueva en TRW. A principios de los año 90 la multinacional ya planteó un excedente de personal y despidos. En aquella época nos dijeron que "no había producto". Entonces ELA tenía mayoría en el comité, y gracias a la unidad, las movilizaciones y la huelga de toda la plantilla fuimos capaces de conseguir negociar un acuerdo sin salidas traumáticas, lo que sirvió para relanzar la actividad de la empresa.

Entendemos que la situación es similar, y ahora también creemos que ante este chantaje y agresión solo cabe una huelga indefinida con movilizaciones que permitan una negociación real que nos permita poder defender el empleo de toda la plantilla y las condiciones laborales de los y las trabajadoras de TRW en Landaben.

## LABURREAN / BREVES

### • ELA exige a Arcelor Mittal que garantice el futuro de la ACB de Sestao

El 21 de enero la multinacional Arcelor Mittal notificó a los representantes de las y los trabajadores de la planta de Sestao la parada indefinida de la producción en este centro. En opinión de Aitor Garriga, responsable del metal en Ezkerraldea, "nos encontramos ante una decisión muy grave que pone en riesgo más de 500 puestos de trabajo entre directos y subcontratas habituales del centro". Garriga denuncia que estamos ante una decisión estratégica de una multinacional que busca unicamente defender sus propios intereses sin tener en cuenta la repercusión social de sus decisiones. "Arcelor Mittal nos comunicó en noviembre que para el primer semestre del 2016 la ACB contaba con 350.000 toneladas de carga de trabajo. Una vez más se constata que de poco valen las previsiones de empresas como Arcelor Mittal, ya que hoy han comunicado que esta producción se va derivar a los centros de Asturias y Fos en Francia".

En este contexto, Garriga exige a la dirección de Arcelor que aporte un proyecto industrial que garantice el mantenimiento los puestos de trabajo, incluidos los de quienes trabajan en las subcontratas, para su centro de Sestao. "El cese de la actividad de esta planta es una muy mala noticia que no solo afecta propiamente a la plantilla sino a una comarca muy castigada en esta crisis, con uno de los niveles más altos de desempleo en Euskal Herria. Sin embargo, desgraciadamente la noticia no es una sorpresa para ELA. Desde que en el año 2011 BBK y Gobierno Vasco formalizaron su salida de la antigua ACB, Arcelor se comprometió con ambas instituciones a mantener la actividad hasta el 2016. Es hora de apostar firmemente por mantener la actividad en la ACB".

**www.ela.eus / @ELAsindikatua / ELA-Facebook**

ELA astekaria

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

**www.ela.eus**

**Franqueo concertado**
**nº 08/207**